

Itziar Ugarte Irizar

Otoitza egingo du euriak

Euria Arantzazu gainean. Ostiral iluntzea, udakoa, trumoi eta kilker hotsa sartzen dira leihotik –handiak txikia birrindu barik hemen–.

Azkar irensten du etortzeaz denak atzo gertatu zena, zitzaiguna, arrapataka doa dena, eta hozten sentitzen da zure heriotza albiste da goeneko. Egunotan bildutako oharra lehortzen hasiak balira bezala honezkero, basa-loreak koadernoan.

Adibidez. «Inpaktua da irakurri ondoren mundua berrizendatu behar izatea, esaldietan aurrera egin ahala zaldiz zoazela sentitu eta bihotza azkartzea, begiak atzekoz aurrera jarri eta zarena edo zarena esaten dizutena lehen aldiz eta sakonki ulertzea, sustraiak sentitzea baina hegala ere bai», Eider Rodriguez. Edo «Azurmendiren lana, euskaldun gisa sentitzeko, begiratzeko, pentsatzeko, erabakitzeke, funtsean, bizitzeko kontzientzia askatasuna da. Inoren sukurtsal mental, kultural, moral, politikoa ez izateko barne askatasunerako arnasa», Alaitz Aizpuru Joaristi. Pentsatu dut, inozentea. Zer gauza ez jakitea euskaldun izatea zer den, jarraitzea ulertu barik ezer eta jarraitzea ulertzeko gogo handiz.

Pentsatu dut, bai gauza handia hainbestetan idatzi dutela *apal* egunotan.

Lorea Agirrek *Gaur*8-n kontatu du egunkarira hots egin zeniola behin, eta lagunak esan dit, *hara, zuri bezala*. Den-denei kontatzeko tentazioa izan dut, egin dut, niri ere deitu zenidala, zati on bat aurrerago baina erredakzio berera, harrerako lankideak esan zidala *Itziar, Joxe Azurmendi, zuretzat*, eta eskegi egin nuela ia, ikaran, besterik entzun aurretik matrailak gorri, fosforito, zainak.

Beltzak, juduak eta beste euskaldun batzuk liburuaren aurkezpenaren bihar munean izan zen, idatzitakoa gustatu zitzaizula esateko deitu zenuen. Eta bide batez galdetu zenidan nire abizenez, Oñati inguruaz, bazela ba-

serri auzo bat Legazpitik beherantz etorrira eskuinetara, ezagutu zenituela hango batzuk, eta baietz nik, alde hartakoa zela gure amaren aita.

Esan dute euskalgintzara, kulturgintzara heltzen denari modu kontziente batean harrera egiteko zure moduetako bat zela hori, saiatu beharko genukeela errepikatzen keinua.

Egunotan pentsatu dut, halaber, zer gertatu den nik zure berri izateko, dena dagoenean programatuta ezagutu ez zaitzagun, zu eta zure ideiak, haien arrisku ederra.

Horregatik egin dut nik ere ariketa, non-nola entzun nuen zutaz lehen aldiz, eta ez zen etxean izan, ez eskolan, ez militantziako urte apurretan, ez lagunartean. Nik Argentinan izan nuen behin *krak* txiki bat, ikusi nituenean beren herriaz eztabaidan, beren buruaren alde eta kontra, zalantzati eta pasionatuki, zer narrazio eraiki zizkieten, nola eragiten zien egunerokoan horrek gero.

Harra sentitu nuen. Eta gu?

Itsasoaren alde hartatik eman nuen izena euskal kulturgintzaren transmisioaz pentsatu nahi zuen graduondoko batean, eta, ongi ari banaiz, orduan gorde nizun ideia bat estreinakoz. Halako zerbait zen, eta balio izan zidan orduan: «Euskal Herri atomizatuaren aurrean kulturgintzak esan lezake soilik nazioa non bildu. Komunitate horren egintza da kulturgintza».

Beste hau ere hartu nizun hitzoste baterako behin, oraindik hunkitu egiten nau: «Batuetan pentsatzen dut: nire ama zergatik ez zen beste edozein bezain unibertsala? Unibertsala egiten gaitu pertsona izateak, ez beste ezerk».

Eta bere biluztasunean duen karga guztiarengatik, baita gogorarazi izan duzun aldi guztiak ere, adi, ez gaitezela tranpan jaus, inork ez duela esplikaziorik zor libre izan gura izateagatik.

Egunotan pentsatu dudan beste gauza mingots samar bat izan da, hain justu, agian, ez dugula hain libre izan gura ere egiaz.

Auskalo. Ez dago gozo mundua, inoiz egon bada –poema batean diozu: «maite dut nik mundua/ ezin banau poztu ere»–, baina ospatzeko moduan gaude; lur libreago bat utzi duzu, diguzu, lantzen jarraitzeko.